



INDARKERIA MATXISTA SALATZEKO ZALDIBARKO UDALAREN PROTOKOLOA

2021

ZALDIBARKO UDALEKO BERDINTASUN ZERBITZUA



AURKIBIDEA

SARRERA	2
INDARKERIA MATXISTAREN KOKAPENA	3
PROTOKOLOA MARTXAN JARTZEKO IRIZPIDEAK	4
KASUAK KASU UDALAREN ZEREGINA.....	5
1.ERAILKETA KASUA EUSKAL HERRIAN EDO EUSKAL HERRIKO EMAKUME BATEN KASUAN.....	5
2. ZALDIBARREN EDO ZALDIBARKO EMAKUME BATEN ERAILKETA KASUAN	5
3. ZALDIBARREN GERTATZEN DEN ERASO MATXISTA BATEN KASUAN	6
ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN EREDUA	8
ERANSKINAK.....	9
BALIABIDEAK	9
LANGILE ETA POLITIKARIENTZAKO ELKARRETARATZE DEIALDIA	15
KASU BAKOITZAREN INGURUAN GERTATUTAKOAZ INFORMATZEKO JARRAITUKO DIREN PAUSOAK	16
GLOSARIOA	18

SARRERA

Dokumentu honetan, "Indarkeria Matxista salatzeko Zaldibarko Udalaren protokoloa" jasotzen da.

Jarraitu beharreko urratsetan sakondu aurretik, indarkeria matxista kokatzeko eta ulertzeko testuinguruari erreparatu behar zaio, indarkeria matxistaren hainbat definizio eta mota, jasotzen eta azaltzen dituenak.

Gainera, protokoloa aktibatzean kontuan hartu eta jarraitu beharreko zenbait irizpide ere aipatzen dira.

Hiru kasuistika ezberdin jasotzen dira, non protokoloa aktibatu behar den. Kasu bakoitzean, jarraitu beharreko urratsak eta jarduteko modua zehaztu dira.

Beharrezkoa den kasuetan erabiltzeko, Adierazpen instituzionalaren eredu bat agertzen da. Eredu hori aldatu egin daiteke momentuko gertakariari egokituz, informazioa erantsiz edo kenduz.

Dokumentuaren azken atalean hainbat eranskin daude. Lehen eranskinean, hainbat baliabideren izenak, helbideak eta kontaktuak jaso dira, udalarenak berarenak, bai Zaldibarren ez dauden baliabideenak ere.

Bigarren eranskinean, indarkeria moten definizioak biltzen dira.

Hirugarren eranskinean, udaleko langileria eta politikariei zuzendutako elkarretaratze deialdiaren eredua, udal mailan erabiltzeko.

Azken eranskinean, kasu bakoitzaren inguruan gertatutakoaz informatzeko jarraituko diren pausoak eta adierazpen eredua biltzen dira.

INDARKERIA MATXISTAREN KOKAPENA

Indarkeria matxista sistema patriarkalaren adierazpiderik larriena da eta ezin da ulertu egoera isolatu gisa. Izan ere, gizonezko eta emakumezkoen arteko botere harremanei eusteko egiturako indarkeria gisa definitzen baita.

Hona hemen, indarkeria matxista kokatzeko eta ulertzeko zenbait definizio:

SISTEMA HETEROPATRIARKALA:

- Sistema soziopolitiko honetan, genero maskulinoa eta heterosexualitatea gailentzen zaizkie beste generoei eta beste sexu orientazioei.
- Oinarri androzentrikoa da; gizonezkoak erdigunean jartzen dituen neurrian, emakumezkoen eta haien genero rolen ekarpenak eskuztatu eta gutxien dituen.

INDARKERIA MATXISTA:

“Generoan oinarritutako indarkeria ekintza guztiak, balizko edo benetako emaitza gisa kalte fisiko, sexual edo psikologikoa dutenak, haien barnean mehatxuak edo askatasunaren gabezia arbitrarioa sartuta, bizitza publikoan edo pribatuan gertatuagatik ere”. Nazio Batuak, 1995.

“Emakumeen kontrako indarkeria, emakume izateagatik pairatzen den indarkeria da. Gizartean hegemonia maskulinoa egonda, emakume-gizonen arteko harreman ezberdinak sortzen ditu, gizonezkoa kokapen pribilegiatu batean jarritz. Indarkeria ezberdinak daude, guztiak sexu-genero sistema zeharkatuz (...)”. Emakunde, 2016.

Horren barruan, bereizketa ezberdinak egiten dira:

- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria. Genero Indarkeria, baldin eta kalte fisikorik, sexualik edo psikologikorik eragiten badu, betiere kalteon barnean eraso fisikoa, bortxa sexuala, tratatu txar psikologikoa edota kontrol jokabideak sartuz.
- Indarkeria sexuala. Ekintza sexual bat edo ekintza sexuala izateko ahalegina, edo pertsona baten sexualitatearen kontra zuzendutako ekintza. Baldin eta edozein eremutan bortxaz egiten bada eta beti ere biktimarekiko erlazioa bazter utziz. Bortxaketa, indarkeria sexual mota bat da.
- Emakumeen kontrako familia barneko indarkeria. Elkarbizitzako edozein kidek emakumezkoen kontra gauzatutako indarkeria da.

Gainera, indarkeria matxistak, mota ezberdinak ditu:

- Psikologikoa
- Fisikoa
- Sinbolikoa
- Sexuala

- Ekonomikoa
- Soziala

PROTOKOLOA MARTXAN JARTZEKO IRIZPIDEAK

Hauek dira, protokoloa martxan jartzeko kontuan izan behar diren irizpideak:

- Biktimaren testigantzaaren egiazkotasunari eta, batez ere, intimitaterako eta anonimotasunerako eskubideari garrantzia ematea.
- Egitateek sinesgarritasuna izan dezaten eta egiazkoak izan daitezen, ez da beharrezkoa Ertzaintzaaren komisarian poliziaren salaketa bat egotea; beraz, ez da beharrezkoa egitatea salatutzat agertzea Udalaren protokoloa aktibatzeke.
- Funtsezkoa da indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei biktimizazio bikoitza ez egitea.
Kasu honetan gogorarazi nahi dugu, nahiz eta Udalak biktima edota gertatutakoari buruzko informazioa izan, Datu Pertsonalak babesteko Lege Organikoa bete behar dela.
- Udalak, eragile sozialek eta talde feministak, batera, erantzun bat ematen saiatzea.
- Aurkeztuko den Adierazpen Institutuzionala, Bozeramaileen Batzordean eta Berdintasun zerbitzuaren zuzendaritzarekin onartzea.
- Ikusgarritasuna ematea erasoei.
- Erasotua izan den emakumea, Udalarekin kontaktuan jartzen baldin bada, babesa eta laguntza erakutsi behar zaio eta beharrezkoak dituen zerbitzuak eskaini (herrikoak, mankomunitatekoak, etab.).

KASUAK KASU: UDALAREN ZEREGINA

1. ERAILKETA KASUA EUSKAL HERRIAN EDO EUSKAL HERRIKO EMAKUME BATEN KASUAN

Udalean gaiaz arduratuko den zinegotzia Berdintasun zinegotzia izango da.

1. Bere bizi-proiektua Euskal Herrian duen edo Euskal herritarra den, baina kanpoan bizi den emakume bat hil dutela jakin bezain laster.
2. Udaletxeko balkoian "Emakumeenganako indarkeria gehiagorik ez" pankarta jarriko da. Gutxienez 3 egun utziko da jarrita.
3. Hurrengo bi egunen buruan, elkarteetako ordezkariak **Elkarretaratzeko** deialdia egingo dute, *"emakumeenganako indarkeria gehiagorik ez"* lelo pean.

2. ZALDIBARREN EDO ZALDIBARKO EMAKUME BATEN ERAILKETA KASUAN

Zaldibarko emakume bat edo Zaldibarren emakume bat erailez gero.

Udalean gaiaz arduratuko den zinegotzia Berdintasun zinegotzia izango da. **Berdintasun zinegotzia Udal Talde Politikoetako bozeramaileekin bilduko da. Elkarteetako ordezkariekin jarriko da harremanetan edo eurekin bilduko da.** Informazio guztia, bilera horretan bilduko da eta bertan bideratuko da protokoloa. Ondorengo urratsak zehaztuko dira:

1. Erabaki egingo da nork hitz egingo duen, informazio zehatza eta egokia izatea bermatzeko eta indarkeria matxistaren aurrean Udalak duen konpromisoa eta jarrera azaltzeko izango da.
2. Udaletxeko balkoian "Emakumeenganako indarkeria gehiagorik ez" pankarta jarriko da. Gutxienez 3 egun utziko da jantzita.
3. Diputazio plazako makila: bandera haga erdian jarriko da krespoiarekin.
4. Ohiz Kanpoko Osoko Bilkurarako deialdia egingo da eta bertan, Adierazpen Institutuzionala onartuko da. Deitutako elkarretaratzeetan parte hartzera animatuko dira herritarrak.
5. Udala gainerako erakundeekin koordinatu eta emakumearen inguru hurbilarekin harremanetan jarriko da, beharrezkoa izatekotan. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara bideratuko da emakumearen inguru hurbila, eskura izan ditzakeen baliabideen berri emateko eta hauek eskuratu ahal izateko.
6. Bi kontzentrazio deialdi egingo dira:

- 6.1. Erailketa eta hurrengo goizean 12:00etako elkarretaratzeko deia egingo zaie herritarrei. (12:00ak baino lehen izan bada, eta Udalak eta elkarteek horren berri izan badute, goizean bertan egingo da).
- 6.2. Erailketa eta hurrengo arratsaldean (19:30). (19:30ak baino lehen izan bada, eta Udalak eta elkarteek, horren berri izan badute arratsaldean bertan egingo da). Elkarretaratzea elkarteek antolatuko dute eta Udalak lagunduko du, herriaren parte hartzea sustatuko du eta deialdira gehituko da. Elkarteek bere adierazpena Udalarekin partekatzea baloratuko dute.

7. Udalak herri-akzio gisa jokatzeari aztertu.

8. Komunikazioa (**beti datuen babesa zainduz**):

- 8.1. Udalak prentsa-oharra edo idatzia bideratuko du, Udalaren izenean, herriko hedabideetara, eskualdekoetara, nazio mailakoetara (egoki ikusiko balitz)...
- 8.2. Udalak herritarrak informatuko ditu erabiltzen diren kanalak erabiliz (bandoak eta kanpoko telebistak).
- 8.3. Udalaren webgunean informazioa jarriko da.

3. ZALDIBARREN GERTATZEN DEN ERASO MATXISTA BATEN KASUAN

Udalean gaiaz arduratuko den zinegotzia Berdintasun zinegotzia izango da.

Berdintasun zinegotzia Udal Talde Politikokoetako bozeramaileekin bilduko da. Elkarrekin ordezkariekin jarriko da harremanetan edo eurekin bilduko da. Informazio guztia, bilera horretan bilduko da eta bertan protokoloa bideratuko da. Ondorengo urratsak zehaztuko dira:

1. Emakumeari babesa adierazi eta laguntza eskaini.
2. Erantzuna prestatzeko begira, erasoak jasanezko emakumearen borondatea kontuan hartu behar da. Kontu handiz prestatu behar da salaketa emakume erasotzailearen identitatea eta intimitatea babesteko (baldin eta ez duen berak publikoki salaketan parte hartu nahi). Fokua erasotzailearengan jarri behar da eta ez alderantziz. Batzuetan erasoak gertatu eta berehala erantzuna prestatzea zaila suertatzen da. Hasteko, askotan berandu jakiten dugulako. Bestetik, erasotzailearen identitatea babesteko ondo adostu behar da, zer esan eta zer ez. Salaketa egun batzuk beranduago egiteak ez dio indarrik kentzen. Ezin dugu eraso bat salatu gabe utzi.

3. Erabaki egingo da nork hitz egingo duen, informazio zehatza eta egokia izatea bermatzeko eta indarkeria matxistaren aurrean Udalak duen konpromisoa eta jarrera azaltzeko izango da.

4. Udala gainerako erakundeekin koordinatu eta emakumearekin eta emakumearen inguru hurbilarekin harremanetan jarriko da, beharrezkoa izatekotan. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara bideratuko da emakumea, eskura izan ditzakeen baliabideen berri emateko eta hauek eskuratu ahal izateko.

5. Udaletxeko balkoian "Emakumeenganako indarkeria gehiagorik ez" pankarta jarriko da. Gutxienez 3 egun utziko da ipinita.

6. Bi kontzentrazio deialdi egingo dira:

6.1. Eraso eta hurrengo goizean 12:00etako elkarretaratzeko deia egingo zaie herritarrei. (12:00ak baino lehen izan bada, eta Udalak eta elkarteek horren berri izan badute, goizean bertan egingo da).

6.2. Eraso eta hurrengo arratsaldean (19:30). (19:30ak baino lehen izan bada, eta Udalak eta elkarteek, horren berri izan badute arratsaldean bertan egingo da). Elkarretaratzea elkarteek antolatuko dute eta Udalak lagunduko du, herriaren parte hartzea sustatuko du eta deialdira gehituko da. Elkarteek bere adierazpena Udalarekin partekatzea baloratuko dute.

7. Adierazpen Instituzionala, Bozeramaileen Batzordean onartuko da eta, gero, Osoko Bilkuratik pasatuko da. Deitutako elkarretaratzeetan parte hartzera animatuko dira herritarrak.

8. Komunikazioa (**beti datuen babesa zainduz**):

8.1. Udalak prentsa-oharra edo idatzia bideratuko du, udalaren izenean, herriko hedabideetara, eskualdekoetara, nazio mailakoetara (egoki ikusiko balitz)...

8.2. Udalak herritarrak informatuko ditu erabiltzen diren kanalak erabiliz (bandoak eta kanpoko telebistak)

8.3. Udalaren webgunean eta sare sozialetan informazioa jarriko da.

ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN EREDUA

Adierazpen hori, indarkeria matxistaren aurrean Udalak duen konpromiso eta jarrera azaltzeko izango da:

ZALDIBARKO UDALA – BOZERAMAILEEN BATZORDEA

Zaldibarko Udaletik gure gaitzespen erabatekoa adierazi nahi dugu Zaldibarren izandako gertaerengatik, izan ere, *(asteko eguna)*, *(data)*, *(gertatu denaren azalpen oso txikia)*.

Udalbatza osatzen dugun talde politiko guztiok babesa erakutsi gura diogu gertakari horiek jasan dituen emakumeari eta

HAUXE ADIERAZTEN DUGU:

- 1.- Euskal Herriko herri eta hirietan emakumeen aurka gertatzen diren mota horretako erasoak gaitzesten ditugu. Eta munduko edozein bazterretan gertatzen direnak ere bai.
- 2.- Eraso matxista hori gaitzesteko kontzentrazio-deialdiekin bat egitea.
- 3.- Erasoak jasan duen gure bizilagunari babesa eta laguntza eskaintzea.
- 4.- Zaldibarren eta mundu osoan emakumeen kontrako horrelako erasoak berehala amaitzea eta desagerraraztea gura dugu.

Bozeramaileen Batzordea,

José Luis Maiztegui Onaindia
(EAJ-PNV)

Eneritz Azpitarte Aranzabal
(EH-BILDU)

José Caro Gallardo
(PSE-EE)

ERANSKINAK

BALIABIDEAK

Emakumeen kontrako indarkeria matxista egoera bat gertatzen denean, zerbitzuen arteko koordinazioa oso beharrezkoa da, modu egoki eta espezializatuan jarduteko.

Hauek dira, Mankomunitatean eta Euskal Autonomi Erkidegoan indarkeria egoera batean funtsezkoak izan daitezkeen baliabideak:

ZALDIBAR	
Zaldibarko Udala	Bizkaiko Diputazio Plaza 1, 48250. 946 827 016 / 946 827 811 Astelehenetik ostiralera. 8:30- 15:00.
Berdintasun Zerbitzua (Udala)	Bizkaiko Diputazio Plaza 1, 48250. 946 827 016 berdintasuna@zaldibar.eus Ostegunetan eta ostiraletan 10:00-15:00.
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak	Bizkaiko Diputazio Plaza 1, 48250. 946200492 Asteazkenetan gizarte8.mdurango@bizkaia.org
Emakumeen eta/edo feministen elkarteak	Dominika Talde Feminista dominikazaldibar@gmail.com Helmuga Emakumeen Elkartea

- **24 ORDUKO ARRETA ZERBITZU ESPEZIALIZATUA**
900 840 111
Doakoa eta fakturan ez du aztarnarik uzten.
- **SOS DEIAK**
112
Telefono zenbakia. Entzuteko eta/edo mintzatzeko desgaitasun kasuan SMS bat.
600 123 112
Zenbakira, datu pertsonalak eta kokapena eta “genero indarkeria” adierazita.
- **Gizarte larrialdiak, Bizkaiko Foru Aldundia.**
94 4025050
Bizkaiko lurralde osoan ematen du arreta, Bilboko udalerrian izan ezik, urteko 365 egunetan.
Ordutegia: astelehenetik ostiralera: 14:45 - 8:15 (hurrengo eguna):

Larunbata, igandea eta jaiegunetan: 24 ordu.

- **Bizkaiko Foru Aldundia. Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna sustatzeko saila. Emakumeak babesteko eta Familientzako laguntza**

Ugasko, 3-2 solairua. 48005 Bilbao.

944 066 900

946 083 574

Zerbitzu horretatik erabilgarri dauden baliabideetara iristeko laguntza ematen da:

- Aldundiaren aholkularitza juridikoa
Hitzordurako: Clara Campoamor Elkartea. 944 239 155
- Aldundiaren arreta psikologikoa
- Tratu txarren (GI/EI) biktimentzako premiazko harrera-baliabideak
Zerbitzu honetara poliziaren bidez iristen da.
- Tratu txarren (GI/EI) biktimentzako egonaldi ertain eta luzerako baliabidea
- Emakumeen kontrako etxe barruko indarkerian espezializatuta dagoen familia barru esku-hartze programa
- Gurasoen aurkako indarkerian espezializatutako familia barruko esku-hartze programa
- Bikote barruko indarkeriaren biktima diren adingabekoen kasuetan espezializatutako familia barruko esku-hartze programa

- **Abokatuen elkargoko laguntza juridikoko zerbitzua, Emakumearen kontrako indarkeriaren, Etxeko indarkeriaren eta Sexu erasoaren biktimentzako (ofiziozko txanda)**

902 103 908

- **Biktimari Laguntzeko Zerbitzua**

900 400 028

944 016 487

9:00 - 14:00

Sav48-1@aju.ej-gv.es

- **Orientazio Juridikoko Zerbitzua (OJZ)**

944 016 712

Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren zerbitzu bat da, eta horren bidez tramitatzen dira ofiziozko abokatuaren eskaerak eta doako justizia-eskaerak ere.

- **Guardiako epaitegia, Durango**

Ezkurdi Plaza, z/g, lehenengo solairua. 48200 Durango.

946 030 060

946 030 080 (fax)

Astelehenetik larunbatera, 9:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Info-justizia-durango@aju.ej-gv.es

- **ERTZAINZA. Durangoko ertzain-etxea.**

Kurutziaga, 25, 48200 Durango.

944 669 300

944 669 301 (fax)

- **OSAKIDETZA- OSI Barrualde- Galdakao Barrualdeko Eskualdea.**

- Abadiño- Matienako Osasun Zentroa
Trañabarren, 13 behe, 48220 Abadiño.

946 032 910

946 032 913 (fax)

SECRETARIA.UAP.ABADINO@osakidetza.eus

Arreta- ordutegia: astelehenetik ostiralera: 08:00- 17:00.

Erreferentziazko ospitalea: Galdakao- Usansoloko ospitalea.

- Abadiño- Zelaietako kontsultategia
Txanporta z/g, 48220 Abadiño.

944 668 680

944 668 686 (fax)

SECRETARIA.UAP.ABADINO@osakidetza.eus

Arreta- ordutegia: astelehenetik ostiralera: 08:00-15:00.

Erreferentziazko ospitalea: Galdakao- Usansoloko ospitalea.

- Berrizko kontsultategia
Gabiola, 6-8. 48240 Berriz.

946 236 100

946 824 365 (fax)

SECRETARIA.UAP.ABADINO@osakidetza.eus

Arreta- ordutegia: astelehenetik ostiralera: 08:00- 15:00.

Erreferentziazko ospitalea: Galdakao- Usansoloko ospitalea.

- Elorrioko kontsultategia
Esteibarlanda, 10 behe. 48230 Elorrio.

946 238 070

946 231 874 (fax)

SECRETARIA.UAP.ABADINO@osakidetza.eus

Arreta- ordutegia: astelehenetik ostiralera: 08:00- 15:00.

Erreferentziazko ospitalea: Galdakao- Usansoloko ospitalea.

- Landako osasun-zentroa
Arriputzueta, 1. 48200 Durango.

SECRETARIA.UAP.DURANGO@osakidetza.eus

Arreta- ordutegia: astelehenetik ostiralera: 08:00- 20:00.

Erreferentziazko ospitalea: Galdakao- Usansoloko ospitalea.

- **Osasun mentaleko sarea**

- Durangoko osasun mentaleko zentroa
Arriputzueta, 1. 48200 Durango (anbulatorioa).
946 032 892
946 032 893
- Durangoko Eguneke Ospitalea
Landako etorbidea, 3 behe 1. 48200 Durango.
946 032 892
946 032 893
- Zaldibarreko Osasun Mentaleko Ospitalea
Bilbao etorbidea, z/g, 48250 Zaldibar.
946 032 800

- **Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak**

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
Bruno Mauricio Zabala, 9. 48200 Durango.
Ordutegia: 09:00-13:00.
Aurretiazko hitzordua:
946 200 492
Bsocial.mdurango@bizkaia.org
- Emakumeentzako orientazio juridiko eta psikologikorako zerbitzua
Aurretiazko hitzordua oinarrizko gizarte-zerbitzuetan:
946 200 492

- **Abadiñoako Udala**

- Berdintasun Saila
Laguntzei eta baliabideei buruzko informazioa:
944 669 420
berdintasuna@abadiano.org
- Gizarte Zerbitzuak
Aurretiazko hitzordua:
946 200 492
Astelehen eta ostegunetan:
San Prudentzio, 10. 48220 Abadiño.
Asteazkenetan:
San Trokaz plaza, 1. 48220 Abadiño.
- Udaltzaingoa
946 215 533
San Torkazplaza, 1. 48220 Abadiño.

- Abadiño Sex programa
Sexualitateari buruzko informazio, aholkularitza eta elkartruke zerbitzua. Gazteei, bere familiei eta hezitzaileei zuzenduta.
Astelehenetan 17:00-19:00, Pino Plazan.
sexuaholkularitza@abadiano.org
- **Berrizko Udala**
 - Berdintasun Saila/ Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
Iturriza, 51. 48240 Berriz.
946 824 525
946 827 950 (fax)
Aurretiazko hitzordua, astelehen eta ostegunetan.
 - Emakumeen eta/edo feministen elkarteak
GURE IZARRAK elkarte: gureizarrak@kzgunea.net
- **Durangoko Udala**
 - Udaltzaingoa
Zeharkalea, 3. 48200, Durango.
946 030 010
 - Berdintasun Saila
Barrenkalea, 17. 48200, Durango.
946 030 042
berdintasuna@durango.eus
 - Andragunea Ahalduntze Eskola
Lariz Torre, 2. 48200, Durango.
 - Emakumeen eta/edo feministen elkarteak
ANDEREAk elkarte: Pinondo Plaza,1. 482000, Durango. 944 657 092
BILGUNE FEMINISTA: Pinondo Plaza,1. 482000, Durango. 944 657 092
- **Elorrioko Udala**
 - Berdintasun Saila
Laguntzei eta baliabideei buruzko informazioa.
Ordutegia: 8.30h-14:30
946 570 089
berdintasuna@elorrio.eus
 - Gizarte Zerbitzuak
Aurretiazko hitzordua:
946 200 492
Astelehen, asteazken eta ostegunetan
 - Udaltzaingoa

Ordutegia: 6:30- 22:00.

946 820 218

- Emakumeen eta/edo feministen elkarteak

LILIKA: lilikaemakumetaldea@gmail.com

ELORRI LORE: elorri.lore@gmail.com

ELORRIOKO EMAKUME ALARGUNEN ELKARTEA: Aldatsekua

Jauregia. 48230, Elorrio.

ELORRIXOKO

BILGUNE

FEMINISTA:

elorrixokobilgunefeminista@gmail.com

LANGILE ETA POLITIKARIENTZAKO ELKARRETARATZE DEIALDIA

20xx(e)ko xx(a)ren xx(e)an gertatutako eraso/hilketa matxistaren ondorioz, Zaldibarko Udalak dei egiten die langile eta politikariei kontzentrazio-deialdira biltzeko, xx(e)an, 12:00etan, Udaletxearen aurrean.

KASU BAKOITZAREN INGURUAN GERTATUTAKOAZ INFORMATZEKO JARRAITUKO DIREN PAUSOAK

Jarraian zehazten dira, protokoloa aktibatu behar izango den kasuetan, Udaletik jarraitu beharko diren informazio kanalak eta erabiliko den adierazpenaren eredua:

1. ERAILKETA KASUA EUSKAL HERRIAN EDO EUSKAL HERRIKO EMAKUME BATEN KASUAN

Kasuistika honetan, Udalak, prentsa zerbitzuaren bidez informatuko du gertaera honen aurkako gaitzespena, adierazpena argitaratuz.

2. ZALDIBARREN EDO ZALDIBARKO EMAKUME BATEN ERAILKETA KASUAN

Kasuistika honetan, Udalak, ondoko bideak erabiliz, jendaurrean jarriko du egitate horiek gaitzesteko adierazpena:

- Bandoak ohiko lekuetan.
- Kanpoko telebistetan adierazpena irakurri ahal izango da.
- Adierazpena, Udalaren web orrian jarriko da.
- Adierazpena prentsa-zerbitzuaren bidez argitaratuko da.

3. ZALDIBARREN GERTATZEN DEN ERASO MATXISTA BATEN KASUAN

Kasuistika honetan, Udalak, ondoko bideak erabiliz, jendaurrean jarriko du egitate horiek gaitzesteko adierazpena:

- Kanpoko telebistetan adierazpena irakurri ahal izango da.
- Adierazpena, Udalaren web orrian jarriko da.
- Adierazpena prentsa-zerbitzuaren bidez argitaratuko da.

Herritarreei eta komunikabideei gertakariaren inguruan informatzeko, jarraian azaltzen den adierazpena kaleratuko da; kasuak kasu gertatua eta jarraitu behar diren pausoak beti kontuan izanda:

ADIERAZPENAREN EREDUA

Zaldibarko Udalak ondoko adierazpena egiten du, joan zen _____, _____ren _____n, _____ (azalpen txikia) ondorioz.

Udalak bere konpromisoa berretsi nahi du bizitza, askatasuna, duintasuna eta emakumeek herritar gisa dituzten eskubideen kontra erasotzen duten indarkeria mota guztiak errotik ezabatzeko. Emakumeen kontrako indarkeria emakume eta gizonen arteko berdintasun ezaren adierazpenik basatiena da.

Udala osatzen dugun langile eta politiko guztiek babesa erakutsi gura diogu gertakari horiek jasan dituen *emakumeari/eraila izan den emakumearen ingurune hurbilari*.

Emakumeen aurkako indarkeria oro gaitzesten dugu, Euskal Herriko herri eta hiri guztietan, mundu osoan bezala; eta horrelako erasoak berehala desagerrarazteko nahia adierazten dugu.

Udalak bat egiten du, eta herritar guztiak animatzen ditu, eraso matxista hori gaitzesteko *kontzentrazio-deialdiarekin /deialdiekin: _____ aren _____n, 12:00etan eta _____etan, udaletxeko plazan*.

GLOSARIOA

Eranskin honen bitartez, protokoloa irakurtzen duten edo martxan jartzen duten pertsonak, biolentzia mota ezberdinen inguruko definizioa ezagutzea eta ulertzea lortu nahi da.

Hauek dira, indarkeria matxistaren barruan dauden mota ezberdinak:

- **Psikologikoa:** Emakumezkoak gutxiesteko xedea duten jokabide guztiak: mehatxuak, emakumezkoen erruduntasun sentimenduak areagotzea, irainak, kontrola, debekuak, deskalifikazio publikoak...
- **Sinbolikoa:** Emakumezkoak gutxiesten dituzten jarrerak eta mezuak dira. Emakumezkoaren kosifikazioa, komunikabideek edo botere guneez zabaltzen dituzten mezu diskriminatzaileak... Menderakuntza, desberdintasun eta diskriminazio harremanak transmititzen edo erreproduzitzen dituzten mezuak, ikonoak edo ikurrak. Gizartean, emakumezkoen kontrako menderakuntza edo indarkeria arrunt bihurtzen edo justifikatzen dituztenak.
- **Fisikoa:** Emakumezkoa fisikoki zauritzera zuzendutako ekintza da. Nahita, emakumearen osotasun fisikoa kaltetzen edota arriskuan jartzen duen edozein ekintza.
- **Sexuala:** Emakumezkoen borondatearen kontrako edozein sexu erlazioa inposatzea. Behartutako intimitate sexuala izatera behartzeko ekintza oro.
- **Ekonomikoa:** Menderakuntza edo nagusitasun ekonomikoaz eta antzekoez aprobetxatzea. Emakumearen bizitzaren alderdi eta erabakiak kontrolatzera zuzendutako ekintza guztiak, baliabide ekonomikoak eta materialak kontrolatuz.
- **Soziala:** Emakumea, bere inguruko saretik (familia, lagunak...) isolatzeko jokabide oro.

Indarkeria matxistaren beste molde batzuk:

- **Transfobia:** Gorputz intersex, transexual edo transgeneroen aurkako ezinikusia eta gaitzespena. Era estrukturalen hainbat indarkeria mota daude, patologizazio medikotik eraso fisikora eta bakartzera eraman dezakeen indarkeria zuzeneraino.
- **Lesbofobia:** Beste emakume batzuekin maitasun eta sexu-harremanak dituzten emakumeen aurkako ezinikusia eta gaitzespena. Bikote horiengan sexua ikusezin bihurtzea lesbofobia molde ohikoenetako bat da, baina ez bakarrik, arau heterosexuala haustearen aurkako indarkeria matxista mota hori indarkeria sexistaren adierazpenez osatzen baita.
- **Homofobia:** Beste gizon batzuekin maitasun- eta sexu-harremanak dituzten gizonen aurkako ezinikusia eta gaitzespena. Indarkeria matxista mota hau

bereziki oldarkorra da gainerako gizonek zuzenean adierazteko orduan, eta horri gehitu behar zaio heteronormatibitateari aurre egiten dioten eta betiko maskulinitasunaren oinarriak zalantzan jartzen dituzten gizonen aurkako arbuioaren zama sinbolikoa.

- **Genero barruko indarkeria:** Sexu/genero bereko pertsonen arteko maitasun eta sexu-harremanen baitan gertatzen den indarkeriari dagokio.

<u>INDARKERIA MATXISTA / VIOLENCIA MACHISTA</u>					
INDARKERIA SEXISTA / VIOLENCIA SEXISTA				INDARKERIA MATXISTAREN BESTE MODEL BATZUK / OTRAS FORMAS DE VIOLENCIA MACHISTA: • TRANSFOBIA • LESBOFOBIA • HOMOFOBIA	GENERO BARRUKO INDARKERIA / VIOLENCIA INTRA-GÉNERO
<i>GENERO INDARKERIA / VIOLENCIA DE GÉNERO</i>	<i>FAMILIA BARRUKO INDARKERIA SEXISTA / VIOLENCIA SEXISTA INTRAFAMILIAR</i>	<i>SEXU- INDARKERIA / VIOLENCIA SEXUAL</i>	<i>JAZARPEN SEXISTA / ACOSO SEXISTA</i>		
• FISIKOA / FÍSICA • PSIKOLOGIKOA / PSICOLÓGICA • EKONOMIKOA / ECONÓMICA • SEXUALA / SEXUAL	• FISIKOA / FÍSICA • PSIKOLOGIKOA / PSICOLÓGICA • EKONOMIKOA / ECONÓMICA • SEXUALA / SEXUAL	• SEXU-ERASOAK / AGRESIONES SEXUALES • SEXU-ABUSUAK / ABUSOS SEXUALES • SEXU-JAZARPENA / ACOSO SEXUAL			